



**BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOARI ERORIKOETATIK NORBERA BABESTEKO SISTEMAK
BERRIKUSTEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA**

3. DOKUMENTUA

PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA



BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOARI ERORIKOETATIK NORBERA BABESTEKO SISTEMAK BERRIKUSTEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA

3. DOKUMENTUA

PRESKIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da erorikoetatik norbera babesteko sistemak berrikusteko zerbitzua ematea, sistema horiek egoera egokian daudela bermatzeko/dokumentatzeko eta izan ditzaketen akatsak, kalteak, higadurak, zikinkeria edo sistemen eraginkortasuna muga dezakeen beste edozein alterazio detektatzeko.

2. DESKRIBAPEN OROKORRA

BBUPek lantokiak eta instalazioak ditu, zeinetan ustiapen-lanak edo mantentze-lanak egiteak pertsonen altuerako erorikoak izateko arriskua edo gune konfinatuetan sartu behar izatea dakarten. Leku horietara segurtasun-kondizioetan sartzeko edo leku horietan segurtasun-kondizioetan egoteko, beharrezkoa da erorikoen aurka norbera babesteko sistemak erabiltzea, bai sistema horiek leku horietan modu iraunkorrean instalatuta, bai leku horietara sartu behar duten edo bertan geratu behar duten pertsonen garraiatuta edo eramanda.

BBUPek instalatutako edo langileen eskura jarritako erorikoen aurka norbera babesteko sistemak era askotakoak dira, egoera eta premia bakoitzera egokituta daude, eta marka komertzial desberdinetakoak dira.

Ezinbestekoa da erorikoen aurka norbera babesteko sistema horiek une oro behar bezala funtzionatzen dutela bermatzea. Horretarako, beharrezkoa da aldian-aldian berrikustea eta mantentze-lanak egitea horretarako prestatuta dauden pertsonen, beharrezkoak diren metodoak eta ekipoak erabiliz, bai berrikuspenen ondorioek eta sistema horien ondorengo erabilerak bermeak eskain ditzaten, bai berrikuspen-lanak eta mantentze-lanak egiteak arriskurik eragin ez diezaiei lan horiek egiten dituztenei.

Horregatik, erorikoen aurka norbera babesteko sistemak berrikusteko zerbitzu bat behar du BBUPek. Zerbitzu horrek kontuan hartuko ditu *Langileek norbera babesteko ekipamenduak erabiltzeari buruzko segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenei buruzko 773/1997 Errege Dekretuan* eta *Norbera babesteko ekipamenduei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/425 Erregelamenduan jasotako jarraibideak*, baita altuerako erorikoen aurka babesteko arau teknikoak ere, aipatutako erregelamenduaren arabera bateratuta daudenak zein bateratu gabe daudenak.



3. ZERBITZUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

3.1. Aplikazio-eremua

Erorikoen aurka norbera babesteko sistemak (hemendik aurrera, «Sistemak»), berrikusi behar direnak, eraikinetan eta lokaletan, tratamendu-eremuetan, estalkietan, eroanbideetan, kutxetetan eta eragin-eremuetan daude, BBUPen instalazioen barruan, Bizkaiko lurralde osoan eta Burgosko Ordunte presaren inguruan.

Berrikusi behar diren Sistemak askotariko osagaiak dituzte, hala nola jarraian adierazten direnak (zerrenda ez da zehatza). Parentesi artean adierazi da agiri hauek idatzi diren egunean inbentarioan mota bakoitzeko zenbat unitate dauden.

- ✓ Erorikoen aurkako sistemak:
 - Erorikoen aurkako gailu barneragarriak (146)
 - Erorikoen aurkako gailu irristagarriak (24)
 - Ainguraketa-puntuak (behin-behinekoak eta finkoak) (466)
 - Ainguraketa-linea malgu horizontalak (129)
 - Ainguraketa-linea zurrin horizontalak (48)
 - Ainguraketa-lineen orgak (103)
 - Besoak (31) eta besorako oinarriak (207)
 - Tripodeak (14)
- ✓ Salbamendu-sistemak
 - Altxatze bidezko salbamendu-gailuak (11)
- ✓ Euste-sistemak
 - Eusteko gerrikoak eta eusteko lotura-osagaiak (5)

Sistema edo osagai horiek honela banatzen dira:

- Beteluriko EUTan (Arrigorriaga) eta Galindoko HUAn (Sestao) jarritako edo kokatutako Sistemak edo osagaiak: 567
- Beste instalazio batzuetan jarritako edo kokatutako Sistemak edo osagaiak: 617

Berrikusi behar diren Sistemak marka komertzial hauek barne hartzen dituzte: 3M (DBI SALA eta Protecta), UniLine, Hercule, Antec, Vertyc Skylotec, IKAR, Petzl, MSA Latchways, Innotech, Irudek, Gamesystem, Akrobat, Camp Goblin, Faba, GS, GM Distribution, Igena, Kratos, Lux Top (zerrenda ez da zehatza). Adjudikaziodunak marka guztietako Sistemak berrikusteko zerbitzua eman beharko du.

Kontratuaren hasieran, BBUPek berrikusi behar diren sistemen zerrenda bat emango dio adjudikaziodunari. Zerrenda hori aldatu ahal izango da kontratuak irauten duen bitartean (Sistemak kendu edo sar daitezke). Kontratuaren hasieran, eta kontratuaren luzapen-urte bakoitzaren hasieran, BBUPek zerrenda eguneratua emango dio adjudikaziodunari.

3.2. Berrikuspenak

Sistema bakoitzaren berrikuspenak, gehienez ere, Sistema bakoitzaren azken berrikuspen ziurtatua egin eta handik hamabi hilabetera egingo dira gehienez ere. Erabileraren eta beste kondizio batzuen



arabera, bai adjudikaziodunak iradoki duelako, bai BBUPEk eskatu duelako, beste aldizkakotasun bat ezarri ahal izango da Sistema jakin batzuetarako.

Kontratuaren urte bakoitzaren hasieran, berrikuspenen egutegia ezarriko da, ezarritako aldizkakotasuna betetzeko. Kontratuaren lehen urteko berrikuspenak apirila eta ekaina bitartean egin beharko lirateke. Arrazoren bat dela eta, epe horretan egin ezin diren berrikuspenak adjudikaziodunak eta BBUPEk adostutako datetan egingo dira.

BBUPEk, egoki iritziz gero, dagoeneko berrikusi diren Sistemen beste berrikuspen batzuk eskatu ahal izango dizkio adjudikaziodunari egoera jakin batzuetan, hala nola, erorikoa izan duten Sistemenak, narriadura nabarmena duten Sistemenak eta abar.

Berrikuspenak Sistema bakoitzaren fabrikatzaileak adierazitakoaren arabera egingo dira, edo, bestela, erreferentziazko arau teknikoetan ezarritakoaren arabera. Berrikuspenetan egindako egiaztapenak eta probak erregistratuko ditu adjudikaziodunak, eta, horretarako, fabrikatzaileak emandako formatuak edo adjudikaziodunak berak dituenak erabiliko ditu. BBUPEk erregistro horien kopia bat eskatzeko eskubidea izango du.

Sistema batean aurretik euskarri bat instalatu behar izan bada eta Sistema euskarri horren gainean jarri bada, Sistema horren berrikuspena egiten denean, euskarriaren berrikuspena ere egin beharko da, adibidez, ainguraketa-linea zurrunetarako portikoak edo ainguraketa-puntuetarako euskarriak.

Litekeena da berrikuspen batzuk egiteko, gune konfinatuetara edo altueratik erortzeko arriskua dagoen lekuetara sartu behar izatea; beraz, ezinbestekoa izango da leku horretara pertsona bat baino gehiago joatea (ikuskatzailea eta prebentzio-baliabidea).

Adjudikaziodunak lan-prozedura bat izan beharko du gune konfinatuetarako, eta prozedura hori ezartzeko beharrezkoak diren ekipamenduak eskuragarri dituela egiaztatu beharko du (gutxienez gas anitzeko detektagailuak eta arnasketa autonomoko ekipamendua/ihes-ekipamendua). Horretaz gain, lanak egiten dituzten langileek behar den trebakuntza izan beharko dute (ikus 3.6 atala).

3.2.1.Mantentze-lanak

Konponketa txikiak edo ikuskatzailearen ustez egoera egokian ez dauden elementu txikiak ordezkatzeko eskaintako zerbitzuaren barruan egin beharko dira, kostu gehigarririk gabe: blokeo-larakoak, erorikoaren lekukoak, gomazko topeak, torlojuak, beste suntsikor batzuk, lubrifikazioak, garbiketak eta antzekoak.

Matxura handiak konpontzea edo garrantzi handiagoko elementuak ordezkatzeko ez dago kontratu honetan barne hartuta: erorikoen aurkako gailu barneragarrien kableak, engranajeak eta antzekoak. Hala ere, adjudikaziodunak balioespen ekonomiko bat eta lanak egingo diren epearen balioespen bat aurkeztu beharko ditu, eta BBUPEk eskubidea izango du lan horiek egitea adjudikaziodunarekin kontratatzeke edo ez. Lan horiek kontratatutik kanpo fakturatuko dira.

3.3. Identifikazioa

Sistema guztiak banan-banan identifikatuta daude fabrikatzaileak esleitutako serie-zenbakiarekin. Zenbaki hori Sistema bakoitza identifikatzeko erabiliko da. Ainguraketa-lineen eta hainbat elementuz osatuta egon daitezkeen eta dagokien serie-zenbakia duten beste Sistema batzuen kasuan, BBUPEk adjudikaziodunarekin adostuko du Sistemak identifikatzeko modua. Ildo horretan, ainguraketa-lineen orgak banan-banan identifikatuko dira, eta adjudikaziodunak dagozkion berrikuspen-ziurtagiriak emango ditu (ikus 3.5 atala).

Serie-zenbakirik ez badu, BBUPEk zenbaki/kode bat emango dio adjudikaziodunari Sistema identifikatzeko. Sistema batek fabrikatzailearen serie-zenbakirik ez badu, eta BBUPEk esleitutako identifikaziorik ere ez badu, adjudikaziodunak zenbaki/kode bat eman beharko dio Sistema banan-banan identifikatzeko.

Identifikazio horrek (fabrikatzailearen serie-zenbakia edo ordezeko identifikazioa) adjudikaziodunak Sistema edo osagai bakoitzari buruz egiten dituen ziurtagirietan eta dokumentuetan agertu beharko

du (ainguraketa-lineen eta hainbat elementuz osatutako beste Sistema batzuen kasuan, hura osatzen duten elementuen serie-zenbakiak agertu beharko dute).

Identifikazio hori une oro ikusi eta irakurri ahal izango da Sisteman edo osagaian (edo haren ondoan, eranskailuetan, etiketetan eta abarretan), eta, beraz, adjudikaziodunak berriro egin beharko du, beharrezkoa denean, hondatzen bada edo galtzen bada.

- ✓ Adjudikaziodunak beste identifikazio bat esleitu ahal izango dio fabrikatzailearen serie-zenbakiaren bidez edo BBUPEk emandako zenbakiaren/kodearen bidez dagoeneko identifikatuta dagoen Sistema bati, baina, horrez gain, aurreko paragrafoetan zehaztutako identifikazioa mantendu beharko da Sisteman bertan, ziurtagirietan eta Sistema bati buruz emandako gainerako dokumentuetan.
- ✓ Adjudikaziodunak kendu egin beharko ditu Sistemaren, bere egoeraren (egokia/ez egokia) edo erabilera-mugen identifikazio okerra egitea eragiteko moduko etiketak eta eranskailuak, edo ezabatu egin beharko ditu oker hori bera eragin dezaketen identifikazio-inskripzio zaharkituak.
- ✓ Adjudikaziodunak Sistemak identifikatzeko barra-kodeak, QR kodeak edo RFID sistemak dituzten eranskailuak erabiltzen baditu, horiek guztiak irakurketa-sistema estandarrek erabiliz irakurri ahal izango dira.

Sistemak identifikatzeko hemen deskribatu den modua aldatzen bada, adjudikaziodunak eta BBUPEk elkarrekin adostu beharko dute aurrez.

3.4. Informazio-kartela

Ainguraketa-gailuen (ainguraketa-linea malguak eta zurrinak, ainguraketa-puntuak eta besoetarako oinarriak) informazio-kartela (edo etiketa, eranskailua edo antzekoa) berrikustea aldizkako berrikuspenaren parte izango da.

Informazio-kartelaren edo etiketaren edukia fabrikatzaileak ezarritakoa izango da, eta gutxienez informazio hau izango du:

- ✓ Ainguraketa-puntuak: azken berrikuspenaren data, gehieneko erabiltzaile kopurua.
- ✓ Ainguraketa-lineak: aldi berean izan daitekeen gehieneko erabiltzaile kopurua sistema/bao bakoitzeko, eskatzen den gutxieneko altuera libre eta konexio-sistema bateragarriak (arnesaren eta ainguraketa-linearen artean). Egindako azken berrikuspena.

Berrikuspena egin ondoren, erabiltzeko egokia ez dela uste bada, argi eta garbi adierazi beharko da informazio-kartelean edo etiketan. (ikus 3.7 atala)

Informazio-kartelik ez badu, adjudikaziodunak informazio-kartel bat jarri beharko du ikusi ahal izateko leku batean, erabiltzailea ainguraketa-lineetan sartzeko/konektatzeko aurreikusitako puntuen ondoan.

Informazio-kartelak edo etiketak egoera onean eta irakurri ahal izateko moduan egon beharko du une oro; beraz, adjudikaziodunak ordezkatu egin beharko du aldizkako berrikuspenetan narriatuta dagoela ikusten bada edo BBUPEk eskatzen badu.

Gainerako Sistemetan, ikuskatzaileak eranskailu bat edo antzeko zerbait jarriko du, eta hor egin den azken berrikuspena agertuko da.

3.5. Berrikuspen-ziurtagiriak

Adjudikaziodunak hauek emango ditu:

- a) Adjudikaziodunak ziurtagiri bateratu bat bidaliko du hilerro. Ziurtagiri horretan, hilabete bakoitzean egindako berrikuspenak agertuko dira, eta eduki hau jasoko du gutxienez (adibidea parentesi artean):
 - Berrikusitako sistema, marka, modeloa eta dagokion identifikazioa (ENRI Mig21 119181 ainguraketa-puntua)



- Kokapena, kokalekua, udalerrria (3. harea-iragazkia, Beteluriko EUT, Arrigorriaga).
 - Berrikuspen-data eta emaitza (24/10/20. Egokia)
 - Ikuskatzailea (izena eta bi abizenak)
 - Sistemak fabrikatzailearen oharren arabera edo erreferentziazko arau bateratu(ar)en arabera berrikusi direla adieraztea
 - Enpresaren sinadura eta zigilua
- b) Gainera, adjudikaziodunak BBUPEk eskatzen dizkion sistemen berrikuspen-ziurtagiri indibiduala egingo du, fabrikatzaileak adierazitako edukiarekin. Ziurtagiri horretan, gutxienez informazio hau jasoko da (adibidea parentesi artean):
- Kokapena, kokalekua, udalerrria (3. harea-iragazkia, Beteluriko EUTa, Arrigorriaga)
 - Deskribapena. Marka eta modelo (ENRI Mig21 ainguraketa-puntua)
 - Identifikazioa (119181) Ikus 3.3 atala
 - Berrikuspen-data
 - Ikuskatzailearen izen-abizenak
 - Berrikuspenaren emaitza (egokia/ez egokia) eta anomaliak, hala badagokio
 - Gailua fabrikatzailearen oharren arabera edo erreferentziazko arau bateratu(ar)en arabera berrikusi dela adieraztea
 - Ikuskatzailearen sinadura eta enpresaren zigilua

Ziurtagiri guztiak adjudikaziodunak egin beharko ditu formatu elektronikoan, pdf formatuan. Multzoen ziurtagirien kasuan (a atala), gainera, zerrenda bat egingo da Excel formatuan.

Kokapenaren eta kokalekuaren izenak BBUPEko laneko arriskuen prebentzioko sailarekin adostuko dira.

3.6. Sistemak berrikusten dituzten langileak

Sistemen berrikuspena horretarako gaitasuna duten langileek egin beharko dute. Adjudikaziodunak egiaztatu beharko du berrikuspenak egingo dituzten langileek gaitasun egokia dutela Sistema baten akatsak identifikatzeko eta identifikatutako akatsen garrantzia ebaluatzeko.

Sistemaren konplexutasuna edo berrikuntza dela eta, edo sistema desmuntatzeko, muntatzeko edo ebaluatzeko segurtasun-ezagutza erabakigarriak behar direnean eta fabrikatzailearen erabilera-eskuliburuan hala jasota dagoenean (adib., erorikoen aurkako gailu barneragarriak), fabrikatzaileak baimendutako pertsona batek bakarrik zuzendu behar ditu berrikuspenak (UNE 365). Kasu horietan, dagozkion fabrikatzaileek emandako baimena egiaztatu beharko du adjudikaziodunak.

Ikuskatzaileak ere izan beharko du altuerako eta gune konfinatuetoako lanak egiteko gaitasuna, eta hori prebentzio-zerbitzuaren ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko du.

Ikuskatzailearen gaitasuna egiaztatzen duten agirietan ez badago egiaztagiri horien balio-epea jasota, egiaztagiri horiek berritzeko epe bat ezartzeko eskubidea izango du BBUPEk.

Egiaztapen hori kontratuaren hasieran aurkeztu beharko da, bere balio-epea amaitzen denean, eta ikuskatzaile berri batek egingo duen lehen berrikuspena edo Sistema berri baten berrikuspena planifikatu aurretik.

Adjudikaziodunak egiaztatu beharko du langile kualifikatuak dituela prebentzio-baliabide gisa jarduteko horrelakorik eskatzen duten berrikuspenetan (gune konfinatuak eta altuerako lanak. Ikus 3.2 atala).

Adjudikaziodunak hirugarren batengana jotzen badu berrikuspen jakin batzuk egiteko, hirugarren horrek ere agiri honetan ezarritako betekizunak bete beharko ditu, eta, beraz, adjudikaziodunak hori



egiaztatzen duen dokumentazioa eman beharko dio BBUPi, berrikuspenak egin baino nahikoa denbora lehenago.

3.7. Eraitza negatiboa duten berrikuspenak

Berrikuspen batetik ondorioztatzen bada Sistema bat ez dagoela erabiltzeko moduan, adjudikaziodunak honela jokatu du (ikus 3.2.1 atala):

- ✓ Akats txikiak daudela ikusiz gero, berehala konponduko dira. Beharrezkoak diren elementuetakoren bat eskuragarri ez dagoelako edo beste arrazoi batzuegatik konponketa geroratu behar izanez gero, honela jokatu da:
 - Modu iraunkorrean instalatutako ainguraketa-gailuak edo osagaiak (ainguraketa-linea malguak eta zurrak eta ainguraketa-puntuak):
 1. Informazio-kartel guztietan edo ainguraketa-gailura konektatzeko aurreikusitako puntu guztietan (edo horien ondoan) argi eta garbi adieraziko da ez dela egokia erabiltzeko. Adierazi ezin bada, ezgaitu egingo da (kontsignatu egingo da).
 2. Egoera horren berri emango zaio berehala BBUPeko prebentzio-sailari posta elektronikoz bidez.
 - Gainerako Sistemak: Sistemak bertan agertuko da erabiltzeko egokia ez dela eranskailu baten edo antzeko zerbaiten bidez, eta BBUPeko prebentzio-sailari emango zaio, gainerako Sistemetatik bereizita.
- ✓ Arazo handiagoak daudela ikusten bada, adjudikaziodunak balioespen ekonomiko bat eta lanak egingo diren epearen balioespen bat aurkeztu beharko ditu, eta BBUPek eskubidea izango du lan horiek egitea adjudikaziodunarekin kontratatze edo ez. Lan horiek kontratatutik kanpo fakturatuko dira.

BBUPek edozein sistema behin betiko erabileratik kanpo uztea erabakitzen badu, BBUPek hala eskatuta, adjudikazioduna arduratuko da hura deuseztatzeaz, eta erregistratuko du Sistema noiz entregatu den deusezta dezaten.

3.8. Presazko berrikuspenak

BBUPek premiazko berrikuspenak eskatu ahal izango ditu, eta adjudikaziodunak 48 orduko gehieneko epean egin beharko ditu. Epe horretan, adjudikaziodunak adierazitako lekura joan beharko du, dagokion berrikuspena egin eta horren emaitzaren berri eman beharko dio BBUPeko Laneko Arriskuen Prebentzioko Sailari (Sistema egokia den edo ez den egokia erabiltzeko edo Sistema erabiltzeko mugak).

Presazko berrikuspena egiteko eskaera jaso ondoren, adjudikaziodunak adierazi beharko du zer epe aurreikusten den eskaera horri erantzuteko.

Datu orientagarri gisa, BBUPen 10 presazko berrikuspen baino gutxiago egiten dira urtean.

3.9. Plataforma birtuala

Adjudikaziodunak BBUPentzat irigarria den plataforma birtual bat izan beharko du. Plataforma horretan, Sistema baten identifikazioa edo kokapena sartuta (ikus agiri honetako 3.3 atala), kontratu honekin lotura duen Sistema horren informazioa eskuratu ahal izango du. Plataformak honako hauek ikusi eta deskargatzeko aukera ematea baloratuko da:

- ✓ Agiri honen 3.5 atalean deskribatutako ziurtagiriak.
- ✓ Agiri honen 3.6 atalean deskribatutako egiaztapenak.



- ✓ Sistema bati azken urteetan egindako berrikuspenen zerrenda eta berrikuspen horien emaitza.
- ✓ Sistema baten kokapena, egoera, identifikazioa eta abar erakusten dituzten argazkiak.
- ✓ Sistema dagoen instalazioaren GPS kokapena.
- ✓ Ainguraketak probatzeko ekipamenduen kalibrazioak eta berrikuspenak.
- ✓ Sistemen informazio-liburuxkak eta CE ziurtagiria.

Lizitatzailleak bere eskaintzan zehaztu beharko du bere plataformak zenbateraino emango dituen atal honetan deskribatutako zerbitzuak. Eskaintzak baloratzeko aldian, BBUPek lizitatzailleei eskatu ahal izango die plataformaren funtzionamendua erakusteko.

Hemen adierazi diren zerbitzuak jasotzen dituen plataforma birtual bat eskuragarri jartzeak adjudikazioduna ez du agiri honetako gainerako ataletan adierazitakoa betetzetik salbuetsiko.

3.10. Beste batzuk

Adjudikaziodunak BBUPekin koordinatu beharko ditu egin behar diren jarduketak, instalazioen eta pertsonen funtzionamenduan eta segurtasunean eragina izan dezaketenak; beraz, BBUPen zentro batera berrikuspenak egitera joan aurretik, gutxienez astebete lehenago jakinarazi beharko du, beharrezkoak diren administrazio-kudeaketak egiteko eta enpresa-jarduerak koordinatzeko.

Adjudikaziodunak une oro bete beharko ditu lan-arriskuen prebentzioari buruz aplikatzekoak diren arauak, eta jarduketak egin bitartean eta jarduketak egin ondoren ordena eta garbitasuna bermatu beharko ditu; horrez gain, sortzen dituen hondakinak indarreko araudiaren arabera kudeatuko ditu.

Adjudikaziodunak solaskide bat ezarriko du BBUPekin, kontratu honekin zerikusia duten alderdi guztiak kudeatu eta koordinatzeko.



4. LIZITATZAILEEK BETE BEHAR DITUZTEN KONDIZIOAK

Indarrean dauden lege-xedapenen arabera Administrazioarekin kontratuak egiteko ahalmena duten pertsona fisiko edo juridiko guztiek parte hartu ahal izango dute lizitazio honetan, baldin eta agiri hauetan eskatutako gaitasun tekniko eta ekonomikoari buruzko irizpideak egiaztatzen badituzte.

Bere jarduera gauzatzeko eta, bereziki, agiri honetan zehazten diren lanak egiteko behar diren giza baliabideak, baliabide teknikoak eta materialak eduki beharko ditu.

Lizitatzailerik zerbitzua gauzatzeko (agiri honen 3. atalean deskribatutako jarduerak barne) memoria teknikoa eta metodologia aurkeztu beharko dituzte.

Lizitatzailerik zerbitzua emateko aurreikusitako antolamendua zehaztu beharko dute, eta esperientzia duen talde bat eskaini beharko dute, behar bezala koordinatua eta prest egongo dena kontratua sinatzen denetik aurrera lanak hasteko. Horrez gain, zerbitzua gauzatu bitartean taldeko kideentzat aurreikusitako prestakuntza-planak zehaztu beharko dituzte.

Eskaintzarekin batera, lizitatzailerik beharrezkoa den dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko dute, agiri honetan ezarritako baldintzak betetzen direla zehazteko eta balorazio teknikoa egiteko behar diren datuak eskuratzeko. Balorazio hori egiteko irizpideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa administrazio-klausulen agirian zehazten dira.

5. BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK

5.1. Baliabide materialak

Sistema bakoitzaren fabrikatzaileak adierazitakoaren arabera, berrikuspenak egiteko beharrezkoak diren lan-ekipamenduak (norbera babesteko ekipamenduak barne) izan beharko ditu adjudikaziodunak.

Adjudikaziodunak erabiltzen dituen ekipamenduak kalibratu, egiaztatu edo aldian-aldian berrikusi egin beharko dira, baldin eta araudi teknikoa edo legala aplikatuz, hori egitea beharrezkoa bada. BBUPek adjudikaziodunari eskatu ahal izango dio goiko hori egiaztatzen duen dokumentazioa.

Baliteke zaila izatea toki jakin batzuetara ibilgailu arrunt batean (ibilgailu utilitariora, turismoa edo furgoneta) iristea, eta, beraz, adjudikaziodunak lur orotako ibilgailu bat eduki beharko du, behar izanez gero erabiltzeko.

5.2. Giza baliabideak

Adjudikaziodunak langile hauek izan beharko ditu, gutxienez, kontratuari dagozkion zereginak betetzeko:

- Kontratuaren arduradun bat, preskripzio teknikoen agiri honetan araututako zerbitzuari buruzko ezagutza teknikoak dituen, ikuskatzaileak (eta, hala badagokio, parte hartzen duten beste enpresa batzuk) antolatze eta koordinatzeko gaitasuna duena, eta BBUPekin elkarriketak izango dituen. (AKPAREN 18. atalean ere aipatu da)
- Agiri honen 3.6 atalaren arabera, behar adina langile trebe Sistemen berrikuspenak egiteko eta agiri honetan ezarritako kondizioetan egiteko.

Lizitatzailerik beren eskaintzan adierazi beharko dute zer antolamendu aurreikusten duten lanak egiteko. Proposatutako langileek prestakuntza-mailari dagokionez eta esperientzia-mailari dagokionez duten prestaketa baloratuko da; horretarako, adjudikaziodunak langileen curriculumak aurkeztu beharko du.

Fabrikatzaileek emandako ziurtagiriak, agiri honen 3.1 atalean jaso direnak, kontuan hartuko dira:



- Lizitatzaillearen langileei, eskaintzan sartuta daudenei, berrikuspenak egin behar zaizkien Sistema konplexuen berrikuspenak egiteko baimena ematen dien ziurtagiria (ikus agiri honen 3.6 atala).
- Bere Sistemen instalatzaile, mantentzaile edo ikuskatzaile gisa trebatzeko, lizitatzaillearen langileei, eskaintzan sartuta daudenei, emandako prestakuntza aitortzen duen egiaztageria.

6. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ETA INGURUMENAREN GAINEKO BETEKIZUNAK

Adjudikaziodunak une oro bete beharko ditu lan-arriskuen prebentzioari buruz aplikatzekoak diren arauak.

Kontratua adjudikatu ondoren, BBUPEk beharrezkoa den dokumentazioa eskatuko dio adjudikaziodunari, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen eta berau garatzen duten arauen ondoriozko betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko, 1. eranskinean deskribatzen den bezala.

Altuerako lanak egin behar izatea eta gune konfinatueta sartu behar izatea eska ditzaketen lanak egiteko gaitasuna (prozedurak eta prestakuntza) egiaztatzen duen dokumentazioa eskatuko zaio adjudikaziodunari. Gune konfinatueta sartzeko, ezinbestekoa izango da langileek 4 gasen (O₂, H₂S, CO, Leherkorra) detektagailua eramatea.

Adjudikazioa egiten den unean esleipendunak ez baditu baldintza horiek betetzen, baldintza horiek betetzeko plangintza bat eskatuko zaio. Adjudikaziodunak kudeatu beharko ditu bere jardueraren ondorioz eta beste jarduketa batzuen ondorioz sortutako hondakinak, ingurumenerako eta osasunerako arriskutsuak izan daitezkeenak. Hondakinak kudeatzaile baimendu baten bidez kudeatu behar dira, hondakinak tratatzeko indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik.

Bilbo, 2024ko abenduaren 19a

Lan Arriskuen Prebentzio Ataleko burua

Izpta.: Cristina Arrieta Farraró



1. ERANSKINA. ENPRESA KONTRATISTEK EGINDAKO LANETAN LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO PROZEDURA (ESKATUTAKO LANAK ADJUDIKATUZ GERO)

1. AURRETIAZKO EKINTZAK

Lanak hasi aurretik, bilera bat egingo da. Bilera horretan, 31/95 Legearen 24. artikuluan eta 32 bis artikuluan eta 171/2004 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera egin beharreko lanak aztertuko dira, obra edo lanerako beharrezkoak diren **koordinazio-bitartekoak** esleituz, lanen arriskugarritasuna, langile kopurua edota nahasitako enpresak kontuan izanik, 171/2004 Errege Dekretuko 14. artikuluekin bat etorriz. Bilera horretara, kontratuaren arduradunaz eta BBUPen teknikari arduradunaz gain, gutxienez beste hauek ere joango dira: BBUPeko prebentzio-zerbitzua eta enpresa adjudikaziodunaren ordezkaria eta laneko arriskuen prebentzioko teknikaria.

Bilera horretan **Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak** honakoa eskainiko dio enpresa adjudikaziodunari:

- **BBUPek Lan Kondizioen Arriskuen Ebaluazioa** jarriko du enpresa kontratistaren eskura; bertan jasoko da enpresa kontratistako langileek zer arrisku izango dituzten **BBUPeko** instalazioetan egindako lanen ondorioz, baita arrisku horiek eragotzi edo arintzeko aplikatu beharreko neurriak ere.
- Lan berezietan (lan-eremuagatik edo haren arriskugarritasun bereziagatik), **BBUPek** egokitzen jotzen badu, enpresa kontratistak nahitaez bete beharreko **lan-prozedurak** eta **-jarraibideak** emango dizkio enpresa kontratistari.
- **BBUPek Larrialdi Plana** helaraziko dio enpresa kontratistari, edo haren gabezia, enpresaren lanak garatzen diren instalazioetan larrialdia izanez gero jarraitu beharreko aginduak.

BBUPek dokumentu hauek aurkezteko eskatuko dio **enpresa adjudikaziodunaren** ordezkariari, lanak egiten hasi baino lehen:

- Egin beharreko lanen **Arriskuen Ebaluazio** Espezifikoa edo Segurtasun eta Osasun Plana (obra motaren arabera). Dokumentu hori entregatzeko epea enpresa esleipendunari jakinaraziko zaio, eta lan motaren eta horien iraupenaren arabera izango da. Nolanahi ere, dokumentu hori, beranduenez, hiru asteko epean entregatu beharko da.
- Egin beharreko lanen prebentzio-jarduera planifikatzea, hala badagokio.
- Lanak hasi aurretik, enpresa adjudikaziodunak **dokumentu** hauek aurkeztu beharko ditu:
 - Prebentziozko antolaketaren modalitatea (dokumentazio ofizialaren kopia barne) eta kanpoko prebentzio-zerbitzu(ar)en kontratazioaren egiaztatzea, hala badagokio.
 - Azpikontratazio-erregistroa (hala badagokio).
 - Lanetan esku hartzen duten langileen zerrenda.
 - Segurtasuneko arduraduna edo Prebentzio Baliabidea izendatzea.
 - Prebentzioko osasunaren zaintzaren erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne).
 - Lanpostuko langileentzako prebentzio-prestakuntzaren eta -informazioaren erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne, halakorik badago).



- Prebentzioari buruzko prestakuntza espezifikoaren erregistroa
- Norbera babesteko ekipamenduen entrega-erregistroa (langileek sinatuta).
- Laneko ekipoen erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne, halakorik badago).
 - Matrikulatutako laneko ekipoen erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne).
 - Laneko ekipo mugikorren, automotorren edo ez mugikorren erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne, halakorik badago).
 - Altuerako aldi baterako lanetarako lantaldeen erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne, halakorik badago).
 - Garabi Mugikor Autopropultsatu erako laneko ekipoen erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia barne).
- Jasotako informazioaren erregistroa [BBUPek bidalitako dokumentazioa barne —LBI, IT eta abar—].
- Arrisku elektrikoa dakarten lanak egiteko langileen baimenaren/kualifikazioaren erregistroa, 614/2001 Errege Dekretuaren arabera (hala badagokio).
- Partzuergoko instalazioetara sartzeko baimen-eskaera.
- Lanak egin bitartean erabiliko diren produktu kimikoen erregistroa eta segurtasun-datuen fitxa emango da.

Gainera, lanekin hasi aurretik, honako dokumentu hauek aurkeztuko ditu:

- Gizarte Segurantzaren kotizazio-egoeraren ziurtagiria (lanak irauten duen bitartean hilero emango da).
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintzari egin beharreko kotizazioen egiaztagiriak, non langileen zerrendan zerrendatutako pertsonak jasota agertu beharko diren. Halakorik ezean, Gizarte Segurantzako alta-agiriak (langile sartu berrien kasuan) edo, hala badagokio, autonomoen ordainagiria. Hilero emango dira lanek irauten duten bitartean.
- Erantzukizun Zibileko aseguru-polizaren kopia, eta primak ordainduta izatearen egiaztagiria.
- Arriskuen ebaluazioa (espezifikoa BBUPentzat, hala badagokio)

AZPIKONTRATATUZ GERO, AURREZ ADIERAZITAKO DOKUMENTAZIOA ESKATU BEHAR ZAIE LANETAN ESKU HARTZEN DUTEN ENPRESA GUZTIEI.

Gainera, hasierako bileran:

- **Bereziki arriskutsuak diren lanetarako prebentzio-neurri espezifikoak** ezarriko dira, hala badagokio. Litekeena da eremu konfinatuetan edota altueran lanean aritu behar izatea. Kasu horietan prebentzio-neurri espezifikoak hartu beharko dira, lanak burutzeko eskatuko direnak. (prebentzio-baliabideen presentzia, prebentzioaren eremuko prestakuntza osagarria, babeserako ekipamendu osagarriak, etab.)
- Edonola ere, **elkarrekin identifikatuko dira** bi enpresek aldi berean eta batera egindako ekintzen ondorioz sortu edo aldatu daitezkeen arriskuak.

2. OBRA EDO LANA EGITEA



- BBUPEk **aldizkako bilerak** egingo ditu kontratatutako enpresetako ordezkariekin, kontratatutako prebentzio-arloko teknikariekin, kontratuaren arduradunarekin eta BBUPEko Prebentzio Zerbitzuarekin, eta bilera horietan jorratutako gaien akta jasoko da; lanen ezaugarrien arabera.
 - Lanen izaera dela medio, hala behar denean, lanok egin **aurretik bilerak** deituko dira, prebentzio arloan beharrezkoak diren neurri espezifikoak zehazte aldera (prebentzio-baliabideen presentzia, prebentzio arloko prestakuntza osagarria, babeserako ekipamendu osagarriak eta abar). Aurretiko bilera horietara bertaratuko dira kontratatutako enpresetako arduraduna, kontratatutako Prebentzio-arloko teknikariak, kontratutako arduraduna eta BBUPEko Prebentzio Zerbitzua.
 - Enpresa adjudikaziodunari dagokio Preskripzio Tekniko Partikularren Agiri honetan jasotako lanetarako beharrezkoak diren babes kolektiboko ekipamendu guztiak edukitzea. (Adib.: Gas-detektagailuak, instalazio motaren arabera erreskate-ekipoak, arnas ekipamenduak, seinaleztapen-elementuak eta abar)
 - Enpresa adjudikaziodunaren ardura izango da lanak eragindako eremu guztiak behar bezala **seinaleztatzea** (bide publikoak, kutxatila eta abar), Herri Lanetako Ministerioaren errepideak seinaleztatze 8.3 IC arauarekin bat etorritik, eta bide-segurtasuneko fitxak eratzea, horiek kokatzea eskatzen duten lekuetarako.
 - Aldizka segurtasun-ikuskapenak egingo dira.
 - **Istripuren** bat gertatuz gero (alde batera utzita baxerik eragiten ote duen), enpresa kontratistak BEREHALA jakinaraziko dio kontratatutako kontrol- eta jarraipen-arduradunari (kontratuaren arduraduna), eta azken horrek, berriz, BBUPEko Prebentzio Zerbitzuari.
- Enpresa kontratistak istripua ikertuko du, eta nola **Ikerketa Txostenaren** hala **Istripuaren Parte Elektronikoa**ren kopia bat bidaliko dio kontratuaren arduradunari, eta beste kopia bat BBUPEko Prebentzio Zerbitzuari, hark beharrezkoak diren neurriak har ditzan.

Enpresa kontratistek, azpikontratistek eta langile autonomoek konpromisoa hartuko dute BBUPEk zehaztutako jokabide- eta jardura-arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea une oro errespetatzeko.